

2024ko
HAUTESKUNDEEN
ERREGELAMENDUA

NAFARROAKO
HERRI KIROL
FEDERAZIOA



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Instituto Navarro del Deporte
y de la Actividad Física
Nafarroako Kirolaren eta
Jarduera Fisikoaren Institutua

2024ko...
Nafarroako...
Instituto Navarro del Deporte
y de la Actividad Física
Nafarroako Kirolaren eta
Jarduera Fisikoaren Institutua

NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN BATZAR NAGUSIA ETA
LEHENDAKARIA HAUTATZEKO 2024ko HAUTESKUNDEEN
ERREGELAMENDUA

I. TITULUA

DEIALDIA, HAUTESKUNDE BARRUTIA ETA BATZAR NAGUSIA
ERATZEA

1. artikulua. Hauteskundeetarako deia.

1. Federazioaren batzar nagusia eta lehendakaria hautatzeko hauteskundeetarako deialdia Federazioko lehendakariak egingen du, hauteskunde-egutegian ezarritako hauteskunde-prozesuaren lehen eguncan.

2. Hauteskundeetarako deialdia egin ondoren, Federazioko zuzendaritza-batzordea kudeaketa-batzorde gisa eratuko da, eta Federazioko lehendakaria jarduneko lehendakaria izanen da; hala bata nola besteak Federazioko administrazio eta kudeaketa arruntko lanak baizik ez dituzte egingen.

3. Kudeaketa-batzordeko kideren bat, Federazioko jarduneko lehendakaria barne, Federazioko lehendakari izateko hautagai bada, lehenik edo aldi berean dimisioa aurkeztu beharko du kudeaketa-batzordeko kide gisa.

2. artikulua. Barrutia.

Hauteskunde barrutia bakarra izanen da, eta Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoa hartuko du.

3. artikulua. Batzar nagusiaren osaera.

1. Nafarroako Herri Kirol Federazioko batzar nagusia, hots, Federazioko organo gorena, 30 kidek osatuko dute; estamentu bakoitzak ordezkari hauek izanen ditu:

kirol elkarten ordezkariak (kirol klubak, klub filialak, eta, hala badagokio, eskola umen kirol klubak eta kirol sozietate anonimoak): 6

kirolarien ordezkariak: 18

teknikarien ordezkariak: 3

epaile eta arbitroen ordezkariak: 3

2. Aurreko puntuan aipatzen den batzarkide kopuruan ez da sartuko Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakaria, baldin eta aipatutako batzar nagusiko hautetsia ez bada.

II. TITULUA

BATZAR NAGUSIKO HAUTESLEAK ETA HAUTAGAIK

4. artikulua. Batzar nagusiko hautesleak.



1. Kirolarien batzar nagusiko ordezkariak honako hauek aukeratuko dituzte: 2024 urteko federazio-lizentzia ofiziala duten adin nagusiko kirolariek, baldin eta 2023 urteko lizentzia izan badute.

Bozkatu ahal izateko, bozketaren egunean izan behar dira adinez nagusi.

2. Kirol elkarteek batzar nagusian izanen dituzten ordezkariak kirol klubek, klub filialek eta, halakorik bada, eskoletako kirol klubek eta kirol sozietate anonimoek hautatuko dituzte, betiere Nafarroako Kirolaren Erregistroan inskribatuta badaude eta 2024 urteko federazio lizentzia ofiziala badute eta 2023 urtekoa izan badute. Horrez gain, batzar nagusiko hauteskundeetan kirol entitate batek hautesle izateko honako baldintza hauetako bat bete beharko du: kirolarien estamentuko edo estamentu tekniko lizentzia bat gutxienez tramitatu izana entitate horren bidez aipatu bi denboraldietan, edo federatutako kirol jarduera edo lehiaketaren bat antolatu izana bi denboraldi horietan. Kirol elkarreendako federazio lizentzia ofizialik ez badago, horrelakotzat hartuko da, ondorio horietarako, Federazioak sustatutako lehiaketa eta/edo jardueretako inskripzioa eta parte-hartzea aipatutako urteetan.

Horretarako, Nafarroako Herri Kirol Federazioak ziurtagiri bat eskatuko dio Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuari, eta hartan jasoko da beren modalitatea aitortua duten zcin kirol entitate dauden inskribaturik Nafarroako Kirol Entitateen Erregistroan.

Aurreko lerroaldean adierazitakoari jarraikiz hautesle diren kirol elkarteek, batzar nagusian izanen dituzten ordezkariak hautatzeko botoa emanen dute kirol klubeko edo dagokion elkarteko lehendakariaren bidez, edota kirol klubeko edo elkarteko zuzendaritza-batzordeak ahalmen horretaz baliatzeko espresuki izendatzen duen pertsonaren bidez; halakoetan, aldezturik edo botoa emateko uncan aurkeztu beharko da klubeko idazkariak egindako agiria, lehendakariaren oniritzia duena eta adierazitako ahalmena esleitzen diona.

3. Estamentu teknikoetako kideak (teknikariak, entrenatzaileak) eta arbitralekoak (arbitroak, epaileak eta baliokideak), adinez nagusiak badira, baldin eta 2024 urteko federazio lizentzia ofiziala badute eta 2023 urtekoa ere izan badute. Horretarako, federazio lizentzia ofizialtzat hartuko da federazioan sartuta egotca ekartzen duena, csate batrako, kasuan kasuko entrenatzaileen elkargoetako, arbitroen batzordeetako edo antzekoetako kide izatea.

Bozkatu ahal izateko, bozketaren egunean izan behar dira adinez nagusi.

4. Aurreko 1., 2. eta 3. apartatuetan ezarritako betebeharrez gainera, hautesle izateko eta Federazioko batzar nagusiko kideak hautatzeko, beste baldintza hau bete behar da nahitaez:

- a) Bizilekua Nafarroako Foru Komunitatean finkatua izatea.
- b) Dagokion Nafarroako kirol-modalitate ofizialeko lehiaketetan eta jardueretan parte hartu izana, behar bezala justifikatutako lesiorik izan ez bada. Horrelako lehiaketa edo jarduerarik ez balego, nahikoa izanen da kirol-lizentzia izatea.

5. Bi estamentu edo gehiagotako kide diren pertsona fisikoek, bi estamentuetan hautesle izateko baldintzak betetzen dituztenek, estamentu horietan guztietan bozkatzeko eskubidea izanen dute.

5. artikulua. Batzar nagusiko hautagaiak.

1. Hauteskundeen erregelamendu honen 4. artikuluko 1., 3. eta 4. apartatuei jarraikiz hautesle diren pertsona fisikoak izaten ahalko dira batzar nagusiko kide izateko hautagaiak kirolarien, teknikarien, epaileen, arbitroen edo baliokideen arloko estamentuak ordezkatzeko.

2. Kirol elkarteen arloko estamentua ordezkatzeko, hauteskundeen erregelamendu honen 4. artikuluko 2. eta 4. apartatueta ezarritakoari jarraikiz hautesle diren kirol elkarteak izanen dira batzar nagusiko kide izateko hautagai.

Kirol elkarteen arloko estamentuaren aldetik batzar nagusiko kide izatea hautatutako kirol elkartei dagokie. Hautatutako kirol elkarteek ordezkaritza izanen dute batzar nagusian eta Federazioko lehendakaria hautatzeko botoa emanen dute kirol klubeko edota dagokion kirol klubeko edo elkarteko zuzendaritza-batzordeak ahalmen horretaz baliatzeko espresuki izendatzen duen pertsonaren bidez; halakoetan, alde aurretik edo botoa emateko unean aurkeztu beharko da klubeko idazkariak egindako agiria, lehendakariaren oniritzia duena eta adierazitako ahalmena esleitzen diona.

Pertsona fisiko bakoitzak kirol klub edo elkarte bakarra ordezkatzeko ahalko du. Batzar nagusiaren bilkurretan, ordezkaritza hori ezin du bere gain hartu, kirolarien, teknikarien, arbitroen edo beste batzuen estamentuen izenean, jadanik batzarkide den ezein pertsona fisikok.

3. Baldin eta estatutueta beste estamenturen bat jaso bada, hautesle diren pertsona fisikoak edo erakundeak izanen dira hautagai.

4. Aurreko 1. eta 2. apartatueta ezarritako betebeharrez gainera, Federazioko batzar nagusiko kide izateko hautagaiak baldintza hau bete beharko dute nahitaez:

- a) Kirol arloan zuzendaritza-karguak edo ordezkaritza-karguak betetzeko desgaiturik ez egotea organo eskudunak administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, ezta kargu publikoetan edo ordezkaritza-aritzeko desgaiturik ere epai irmo baten bidez; eta ez egotea kirol arloan desgaiturik kirol auzitegi, federazio nazional edo nazioarteko baten behin betiko ebazpen baten bidez.
- b) Bizilekua Nafarroako Foru Komunitatean finkatua izatea.
- c) Dagokion Nafarroako kirol-modalitate ofizialeko lehiaketetan eta jardueretan parte hartu izana, behar bezala justifikatutako lesiorik izan ez bada. Horrelako lehiaketa edo jarduerarik ez balego, nahikoa izanen da kirol-lizentzia izatea.

5. Bi estamentu edo gehiagotako kide diren pertsona fisikoen kasuan, hautagai izateko baldintzak bietan betetzen badituzte, estamentu bakar batean izan daitezke hautagai, bakoitzak aukeratzen duen horretan, hain zuzen.



III. TITULUA

FEDERAZIOKO LEHENDAKARITZARAKO HAUTESLEAK ETA HAUTAGAIK

6. artikulua. Federazioko lehendakaria hautatzeko hautesle izatea.

1. Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakaria federazioko batzar nagusiko kideek hautatuko dute, eta, horretarako, batzar nagusirako deia egingen zaie hauteskunde-egutegian ezarritako egunean eta hauteskundeen erregelamendu honekin bat.

2. Federazioko lehendakari izateko hautagai izateko, hautagaiek batzar nagusiko kideen abalak aurkeztu behar dituzte; batzar nagusiko kide bakoitzak Federazioko lehendakari izateko hautagai bat baino ezin izanen du abalatu.

7. artikulua. Federazioko lehendakari izateko hautagai izatea.

1. Pertsona fisiko hauek izaten ahalko dira Federazioko Lehendakaritzarako hautagai:

- a) Hauteskundearen erregelamendu honen 4. artikuluko 1., 3. eta 4. ataletan ezarritakoari jarraikiz hautesle diren pertsona fisikoak.
- b) Kirol elkarteek Federazioko Lehendakaritzarako hautagai izateko proposatutako adin nagusiko pertsona fisikoak, hauteskundearen erregelamendu honen 4. artikuluko 2. eta 4. ataletan ezarritakoari jarraikiz hautesle direnak. Hala proposatutako hori lehendakari hautatzen badute, autonomia eta askatasun osoz jardunen du, hautagai izateko proposatu zuen elkarteari dagokionez, eta lehendakari izaten jarraituko du elkarte horren konfiantza galduta ere.

2. Aurreko 1. atalean ezarritako betebeharrez gainera, Federazioko Lehendakaritzarako hautagaiek baldintza hau bete behar dute nahitaez:

- a) Haren hautagaitza babesten duten batzar nagusiko 3 kideren aldeko abala aurkeztea.
- b) Bizilekua Nafarroako Foru Komunitatean finkatua izatea.
- c) Kirol arloan zuzendaritza-karguak edo ordezkaritza-karguak betetzeko desgaiturik ez egotca organo eskudunak administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, ezta kargu publikoetan edo ordezkaritzetan aritzeko desgaiturik ere epai irmo baten bidez; eta ez egotea kirol arloan desgaiturik kirol auzitegi, federazio nazional edo nazioarteko baten behin betiko ebazpen baten bidez.

3. Hona hemen Federazioko lehendakari karguan aritzeko bateraezintasuna dakarten arrazoiak:

- a) Federazioaren zuzenbide osoko kide den kirol elkarte bateko lehendakari izatea, edo hartan zuzendaritza kargu bat betetzea.
- b) Federazioarekin lan harremana izatea edo hari zerbitzu egitea.



Bateraezintasunen bat duen lehendakariak karguan aritzea ahalbidetzen dioten neurriak hartu beharko ditu, edo dimisioa aurkeztu.

TITULUA

HAUTESKUNDE EGUTEGIA

8. artikulua. Hauteskunde egutegia.

1. Hauteskundeetarako egutegi hau ezarri da:

Irailak 16. Federazioko lehendakariaren hauteskundeetarako deia egingen da. Federazioko hauteskunde-batzordearen eraketa. Deialdia eta hauteskundeen erregelamendua (Egutegia barne) argitaratzea eta erroldan parte hartzeko eskubidea duten pertsona fisikoak hautesle-erroldan sartzari buruzko kontsulta-prozesua irekitzea. Kirol entitateak barne hartzen dituen hautesle-errolda argitaratuko da federazioaren bulegoko iragarki-taulan eta federazioaren webgunean.

Irailak 17. Federazioko hauteskunde-batzordean hautesle-erroldaren aurkako erreklamazioak paratzeko epea hasiko da (5 egun baliodun, gutxienez).

Irailak 23. Hautesle-erroldaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea bukatuko da

Irailak 26. Erroldari egindako erreklamazioak ebazteko hauteskunde-batzordearen ebazpena emanen da (gehienez 3 egun balioduneko epean eman beharrekoa), eta behin betiko hautesle-errolda onetsi.

Irailak 27. Hautesleen behin betiko erroldaren onspenaren aurka Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari zuzendurik errekurtsioa aurkezteko epea hasiko da (5 egun baliodun).

Urriak 4. Hautesleen behin betiko erroldaren onspenaren aurka Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari zuzendurik errekurtsioa aurkezteko epea bukatuko da

Urriak 9. Batzar nagusirako hautagaitzak aurkezteko epea hasiko da. (3 egun baliodun, gutxienez).

Urriak 11. Batzar nagusirako hautagaitzak aurkezteko epea bukatuko da.

Urriak 14. Hauteskunde-batzordeak batzar nagusirako hautagai-zerrendak aldarrikatuko dira.

Urriak 15. Batzar nagusirako hautagaien aldarrikapenaren aurka Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari zuzendurik errekurtsioa aurkezteko epea hasiko da. (5 egun baliodun, gutxienez).



Urriak 21. Batzar nagusirako hautagaien aldarrikapenaren aurka Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari zuzendurik errekurtsua aurkezteko epea bukatuko da.

Urriak 22. Hauteskunde-mahaiko kideak izendatuko dira.

Urriak 25. Federazioko batzar nagusiko kideak hautatzeko bozketak Hauteskunde-mahaia egindako aktak Federazioko hauteskunde-batzordeari igorriko zaizkio (ezin izanen da eskualdeko lehiaketa ofizialak egiten diren egunetan izan).

Urriak 28. Hauteskunde-batzordeak Federazioko batzar nagusiko hautetsiak aldarrikatuko dira eta argitara emanen dira.

Urriak 29. Epea hasiko da Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari federazioko batzar nagusiko hautetsien aldarrikapenaren aurka errekurtsua aurkezteko. (5 egun balioudun, gutxienez).

Azaroak 5. Epea bukatuko da Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari federazioko batzar nagusiko hautetsien aldarrikapenaren aurka errekurtsua aurkezteko.

Azaroak 11. Federazioko Lehendakaritarako hautagaitzak aurkezteko epea hasiko da (3 egun balioudun, gutxienez). Hautagaitzek beren hautagaitzarako abala aurkeztu behar dute, erregelamendu honen 7. artikuluan zehaztu bezala.

Azaroak 13. Federazioko Lehendakaritarako hautagaitzak aurkezteko epea bukatuko da.

Azaroak 14. Hauteskunde-batzordeak federazioko lehendakaritarako hautagaitzak aldarrikatuko dira. Federazioko Lehendakaritza hautatzeko batzar nagusiko buru eta idazkari titularrak eta ordezkioak zein izanen diren erabakiko da eta argitaratuko da.

Azaroak 15. Federazioko Lehendakaritarako hautagaitzen aldarrikapenaren aurka Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari zuzendurik errekurtsua aurkezteko epea hasiko da (5 egun balioudun, gutxienez).

Azaroak 21. Federazioko Lehendakaritarako hautagaitzen aldarrikapenaren aurka Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari zuzendurik errekurtsua aurkezteko epea bukatuko da.

Azaroak 30. Batzar nagusia eratzeko bilkuraren deialdia eta federazioko lehendakaria hautatzea. Batzarrean idazkari eta lehendakari aritu diren egindako akta Federazioko hauteskunde-batzordeari igorriko zaio. (ezin izanen da eskualde mailako lehiaketa ofizialak egiten diren egunetan izan).

Abenduak 2. Hauteskunde-batzordeak Federazioko lehendakaria aldarrikatuko da.



Abenduak 4. Federazioko lehendakariaren aldarrikapenaren aurka Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari zuzendurik errekurtsua aurkezteko epea hasiko da. *(5 egun baliiodun, gutxienez).*

Abenduak 11. Federazioko lehendakariaren aldarrikapenaren aurka Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari zuzendurik errekurtsua aurkezteko epea bukatuko da.

Abenduak 17. Hauteskunde-batzordeko buruak lehendakari hautetsiari dei eginen dio, karguaz jabe dadin. *(Errekurtsuak aurkezteko epea iraganik ez baldin bada bakarrik ere aurkeztu, karguaz jabetzeari lotzen ahal zaio. Errekurtsoren bat aurkeztu bada, Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeak hura ebatzi arte egon beharko da).*

2. Lehendakaritzarako behin betiko aldarrikatutako hautagai bakarra badago, ez da hauteskunde egutegia osorik bete beharko; ondotik, lehendakari berriak karguaren jabetza hartzen ahalko du hauteskunde-batzordean.

3. Epeetan ageri diren egunak **15:00tan** bukatuko dira, espresuki bestelakorik adierazi ezean.

4. Hauteskunde egutegian ezarritako epeak zenbatzeko, hauteskunde-batzordeari zuzendutako agiri guztiak Federazioak izan behar duen erregistro liburuan aurkeztu eta jaso beharko dira, haien sarrera data adieraziz; ez dira onartuko beste erregistroetan aurkezten diren dokumentuak, Federazioarenean ez bada.

5. Federazioko hauteskunde-batzordeak hauteskunde egutegia aldatzen ahalko du, bat-bateko inguruabarrek bultzatuta eta ahalik eta partaidetzarik handiena sustatze aldera. Hauteskunde-batzordeak proposatzen dituen egutegi aldaketek Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren onespena beharko dute eta Federazioaren egoitzako zein Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko iragarki-oholtan argitaratuko dira, eta baita Federazioaren web orrian ere.

V. TITULUA HAUTESLE-ERROLDA

9. artikulua. Hautesle-errola.

1. Hautesle-errola lau ataletan banatuko da; horietako bakoitza Federazioaren estamentu bati egokituko zaio: kirol elkarteak, kirolariak, teknikariak eta epaile-arbitroak.



2. Hautesle-errodaren atal bakoitzean jasoko dira Federazioko estamentu bakoitzeko hautesle izateko baldintzak betetzen dituzten eta, hortaz, botoa ematen ahal duten pertsonak nahiz kirol elkarteak.

Pertsona fisikoei dagokienez, datu hauek bilduko dira: a) ordena-zenbakia; b) izen-abizenak; c) jaiotze data; d) kirol lizentziaren zenbakia; e) zein kirol estamentutakoa den.

Kirol entitateei dagokienez, datu hauek bilduko dira: a) ordena-zenbakia; b) izena; c) erregistro-zenbakia.

3. Hautesle-errodan sartuko da Federazioko idazkariak egindako ziurtagiria, lehendakariak ontzat emana, egiaztatzen duena errodan ageri diren pertsona fisiko edo juridikoek betetzen dituztela aipatu foru agindu horretan eta Hauteskundeei buruzko erregelamendu honen 4. artikuluan batzar nagusiko hautesle izateko ezarritako baldintzak.

4. Federazioaren bulegoetan (Mourgues etorbidea, 32 – beheka, Igo lokala 31740 Doneztebe.) aurrez aurre kontsultatzen ahalko da bertan agertzeko eskubidea duten pertsona fisikoak sartuta ote dauden, baina norbera ote dagoen baizik ezin da kontsultatu, eta ezin da beste batzuei buruzko kontsultarik egin.

Era berean, Federazioak kontsulta egiteko prozedura telematiko bat ere ezarriko du webgunearen bidez norbera errodan dagoen kontsultatzeko, bermatuz ezin izanen dela deskargatu errodaren informazio osoa daukan artxiborik.

Kirol entitateak barne hartzen dituen hautesle-errolda argitaratuko da federazioaren bulegoko iragarki-taulan eta federazioaren webgunean.

5. Hautesle-errodaren aurka egin litezkeen erreklamazioak Hauteskunde-batzordeari zuzendurik aurkeztu beharko dira, hauteskunde egutegian aipatzen den epean.

Hauteskunde-batzordeak erroldari buruz ematen dituen ebazpenen kontrako errekursoak Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari aurkeztuko zaizkio 5 egun balioduneko epean.

Erreklamazioak ebatzi eta hautesleen behin betiko errolda onetsi ondotik, ez da onartuko berari buruzko inpugnaziorik hauteskunde prozesuaren beste faseetan.

TITULUA

HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN OSAERA, ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA

10. artikulua. Osaera.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Instituto Navarro del Deporte
y de la Actividad Física
Nafarroako Kirolaren eta
Jarduera Fisikoaren Institutua

1. Hauteskunde-batzordea hauteskundeen prozesuari hasiera ematearekin bat eratuko da, eta hauteskunde prozesuaren bukaterekin batera bukatuko du bere eginkizuna.

2. Hauteskunde-batzordea hiru kidek osatuko dute, gutxienez, eta kide horien artean hautatuko dute, gehiengoz, norik beteko dituen lehendakariaren, batzordekidearen eta idazkariaren karguak, hargatik eragotzi gabe hurrengo paragrafoan idazkari karguaz osatzen dena.

Hauteskunde-batzordeko kideren bat Zuzenbideko lizentziaduna bada, hari egokituko zaio idazkari kargua; idazkaritza lanak egiten ditu eta aholku emanen du hauteskunde prozesuaren barnean sor daitezkeen auzietan.

3. Hauteskunde-batzordeko kide titularrak prozedura honen bidez hautatuko dira:

Lehenik: Hauteskunde-batzordeko 1. eta 2. kidea erabakitzea. Federazioaren diziplina-batzordeetakoak izanen dira biak.- Hauteskundeen prozesuaren deialdia baino lehen, Federazioaren zuzendaritza-batzordeak honako eskaera hauek egiten ditu:

Federazioaren Kirol Lehiaren eta Diziplinaren Batzordeari batzorde horretako bi kide hautatzeko eskatuko dio, hauteskunde-batzordeko 1. kide eta 2. kide titularrak izan daitezzen.

Bigarrena: Hauteskunde-batzordeko 3. kidearen hautaketa. 3. kide titularra zozketa bidez erabakiko da hauteskundeetarako deialdiarekin batera aurkezten den Hautesleen behin-behineko Erroldako pertsona fisikoen artean. Aipatutako zozketa jendaurrean egiten da, Federazioaren egoitzan, hauteskunde egutegiko lehenbiziko eguna baino lehen.

Hauteskunde-batzordeko kide-kargua hartzea nahitaezkoa da atal honetan ezarritako prozeduraren arabera hautatutako pertsonentzat. Betebehar hori bete ezcan, zigorra jartzen ahalko da, kirol diziplinaren araubideari jarraikiz betiere.

4. Apelazioko batzorderik edo epaile bakarrik ez dagoelako edo beste edozein arrazoirengatik ez badago behar adina kide diziplina batzordeetan hauteskunde-batzordeko karguak betetzeko, jendaurreko zozketaz beteko dira hautesleen behin-behineko erroldako kideen artean.

5. Batzar nagusiko kide izateko eta lehendakari izateko hautagaiak ezin izanen dira Federazioko hauteskunde-batzordeko kideak izan. Beraz, Federazioaren diziplina-batzordeetako kideren bat egoera horretan bada, dagokion diziplina organoari jakinarazi beharko dio, eta, zozketan hautaturiko Batzorde Nagusiko kideren bat bada egoera horretan dagoena, Federazioko Kudeaketa Batzordeari jakinaraziko dio; kide horiek zozketa bidez hautaturiko edo bitarteko beraren bidez zehaztutako ordezkoekin ordezkatuko ditu.

6. Hauteskunde-batzordean posturen bat hutsik gelditzen bada (behin betikoz), postu huts hori betetzeko hari dagokion prozedurari jarraituko zaio, hots, kontuan hartuko da federazioetako diziplina-batzordeetatik etorri beharreko kidea den, edo zozketaz izendatu beharrekoa. Nolanahi ere, hutsik dauden postu horiek betetzeko behar



beste kide ez badago diziplina-batzordeetan, zozketa bidez beteko dira, hautesle-erroldako kideen artean zozketa eginez, alegia.

7. Hauteskunde-batzordeko kideen zerrenda Federazioaren egoitzan argitaratuko da, bai eta haren web orrian ere, eta Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuari jakinaraziko zaio.

8. Hauteskunde-batzordeko helbidea hemen ezarri da: Donezteben hots, Nafarroako Herri Kirol Federazioaren egoitzan; Mourgues etorbidea, 32 – behea, 1go lokala.

11. artikulua. Funtzionamendua.

1. Lehendakariak deituko ditu Federazioko Hauteskunde-batzordearen bilerak, hauteskundearen erregelamenduan ezarritako egunetan, baita egoki irizten dion guztietan ere. Orobat, lehendakariak Federazioko hauteskunde-batzordea deituko du, batzordekideen gehiengoak hala eskatuz gero.

Hauteskunde-batzordea edozein gai jorrazteko behar bezala deitua eta eratu egonen da, kide guztiak badaude eta hala aho batez erabakitzen badute.

2. Hauteskunde-batzordearen erabakiek balioa izateko, beharrezkoa izanen da gutxienez ere kideen gehiengoa bertan egotea.

3. Hauteskundearen prozesuan hauteskunde-batzordearen osakerari eragiten dion bazarik sortzen bada, horiek arestian zehaztutako prozedurari jarraikiz beteko dira. Erranak erran, hauteskunde-batzordeak lanean jardun dezake kargu horiek bete bitarte, baldin eta haren kideen gehiengoa mantentzen bada.

4. Erabakiak bertarutzen diren kideen gehiengo soilaz hartuko dira; berdinketarik badago, lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du. Hauteskunde-batzordearen bileren akta eginen da, eta haietan ahalik eta zehatzen jasoko dira bileren nondik norakoak. Halaber, hartzen den erabakiari buruzko boto partikularrak adieraziko dira.

5. Federazioko hauteskunde-batzordeak behin-behineko hautesle-erroldari buruzko erreklamazioak ebazteko hartzen dituen erabakiak zuzenean jakinarazi behar zaizkie interesdunei, eta ohartaraziko zaie errekurtsioa jar dezaketela Nafarroako Kirol Justiziako Batzordearen aurrean, 5 egun balioduneko epean, kasuan kasuko erabakia argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, aipatutako 22/2024 Foru Aginduaren 4.3 eta 7.2 artikuluei jarraikiz.

Hauteskunde-batzordeak interesdunei igortzen dizkien erabaki edo agiriak Federazioaren kasuko erregistro liburuan jasoko dira, eta irteera data adieraziko da.

6. Federazioak hauteskunde-batzordearen esku jarriko ditu dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko behar dituen langile eta baliabideak.

12. artikulua. Gaitasunak.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Instituto Navarro del Deporte
y de la Actividad Física
Nafarroako Kirolaren eta
Jarduera Fisikoaren Institutua

1. Hauteskunde-batzordea federazioetarako hauteskundeak kontrolatu eta antolatzeneko organoa da, eta alderdiek nahitaez eta berehala bete behar dituzte haren erabakiak.

2. Hauteskunde-batzordeari honako hauek dagozkio:

- a) Nafarroako Herri Kirol Federazioko batzar nagusirako eta lehendakaritzarako hauteskundeak zuzendu, antolatu eta gainbegiratzea, eta horiek behar bezala egiteko neurri egokiak hartzea.
- b) Hauteskunde Mahaiak edo hauteskundetan parte hartzen duten hautagaiak egiten dituzten kontsultak ebatzea.
- c) Behin-behineko hautesle-errolaren aurka jartzen diren erreklamazioak ebatzea.
- d) Bere gain hartzea hauteskundetako ekintzetan ofizialki parte hartzen duten guztien gaineko diziplinazko jurisdikzioa, eta hauteskunde prozesuan gertatzen diren arau-hausteak zuzentzea, deusetan galarazi gabe Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari dagozkion eskumenak.
- e) Behin-behineko eta behin betiko hautesle-errolak onestea, boto-paperetarako eredia onestea, Federazioaren batzar nagusirako eta lehendakaritzarako hauteskundetako hautagai-zerrendak eta hautetsiak aldarrikatzea, eta beren karguz jabaraztea.
- f) Hauteskundearen egutegia aldatzea, salbuespenetzko inguruabarririk bada eta ahalik eta partaidetzarik handiena sustatze aldera. Egiten diren proposamenak oro Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak onetsi beharko ditu.
- g) 22/2024 Foru Aginduaren 12.2 artikuluan zerrendatzen diren ziurtagiri, akta eta dokumentuak igortzea kirolaren arloan eskumena duen organoari, arau horren 12.3 artikuluan ezarritako epeetan.
- h) Hauteskundearen erregelamendu honetan esleitzen zaizkionak edo Nafarroako Foru Komunitateko kirol araudiari jarraikiz dagozkionak.

VII. TITULUA

HAUTESKUNDE MAHAIAREN OSAERA, ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA

13. artikulua. Osaera.

1. Hauteskunde-mahaia bakarria izanen da, eta Federazioarendako lanak egiten dituzten edo Federazioak kontratatutako langileek osatuko dute.



2. Hauteskunde mahaia osatuko ducna Arantxa Ariztegi Mariczurrena izanen da. Ordezkoa berriz, Lander Sein Sein.

3. Hauteskunde-mahaia eratzea ezinezkoa denean titular eta ordezkioak bertaratu ez direlako, lehen hiru boto-emaitzek ordeztuko dituzte, eta mahaiburua, idazkari eta mahaikide karguak hartuko dituzte hurrenez hurren.

4. Batzar nagusiko kide izateko eta lehendakari izateko hautagaiak ezin izanen dira hauteskunde-mahaiko kideak izan. Beraz, horretarako zozketan hautaturik ateratzen badira, beste kide bat hautatuko da mahairako, prozedura beraren bidez.

14. artikulua. Funtzionamendua.

1. Hauteskunde-mahaian, nahitaez, estamentu bakoitzarendako hauteskontzi prezintatu bat, hautesle-eroldaren zerrenda (erregelamendu honen 9. artikuluan jasotzen diren datuekin), boto-papera eta hauteskundetako gutun-azalak egonen dira.

2. Erabakiak mahaiko kideen gehiengo soilaz hartuko dira; berdinketarik bada, lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

3. Batzar nagusirako hautagaien artekari baimendurik bada, hauteskunde -mahaia eztabaidetara joaten ahalko dira, eta haietan parte hartzen ahalko dute, hizpidea izanda, baina botorik ez.

Artekariak hauteskunde mahaia akta sinatzen ahalko dute, edo haren kontrako argudioak aurkeztu, ezertan galarazi gabe haren baliozkotasuna eta hauteskunde egutegian ezarritako epeetan erreklamazioak aurkezteko aukera.

4. Estamenturen batean, 22/2024 Foru Aginduaren 13.1.1b) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hauteskunde-mahaia bat baino gehiago eraten bada, federazioko hauteskunde-batzordeak estamentu horren federazioko hauteskunderi dagokien amaierako akta egiten du. Amaierako akta horretan erabakitako mahaia guzti-guztici dagozkien apartatu guztiak batuko dira.

5. Federazioak hauteskunde-mahaia esku jarriko ditu dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko behar dituen langile eta baliabideak.

15. artikulua. Eskumenak.

1. Hauteskunde-mahaia dagokio:

- a) Bozketa behar bezala egiteko neurri egokiak hartu eta zaintzea.
- b) Boto-emaitzen nortasuna egiaztatzea.
- c) Botoak zenbatzea.
- d) Prestatzea bozketa-akta, edo aktak, baldin eta Hauteskunde mahaia beste herri batzuetara joan behar bada; hartan, edo haietan, honako alderdi hauek adieraziko dira: bozketa noiz hasi eta bukatu den, botoa eman duten hautesleen kopurua, bozketan gertatutako gorabeherak, bozketaren ondorioz egin diren erreklamazioak, eman diren boto baliozkoak, baliogabeak eta zuriak, eta hauteskunderen emaitza.



Mahaiko idazkariak prestatuko du akta eta mahaikideek sinatuko dute; hots, mahaiburuak, mahaikideak eta idazkariak.

- e) Gainerako guztiak, hauteskondeen erregelamendu honetan esleitzen bazaizkio edo Nafarroako Foru Komunitateko kirol araudiari jarraikiz badagozkio.

2. Mahaiburuak dauka aginte osoa hauteskondeak egiten diren lokalean ordena mantentzeko, hautesleen askatasuna bermatzeko eta erregelamendu hau betetzen dela ziurtatzeko.

VIII. TITULUA

BATZAR NAGUSIRAKO BOZKETA PROZESUA

16. artikulua. Bozketak.

1. Hauteskunde-mahaiko kideak eta haien ordezkioak bozketa hasteko finkatutako ordua baino ordu erdi lehenago bilduko dira dagokien lokalean, eta Mahaiaren eraketa akta egiten dute.

2. Batzar nagusiko kideak hautatzeko bozketan ezin izanen da botoa delegatu edo postaz igorri.

3. Bozketa honela egingen da: boto-emaeleak nor den egiaztatuko dio idazkariari, eta hark botoa eman duela markatuko du hautesle-eroldaren bazterrean, ezabatu ezin den materiala erabiliz. Berchalakoan, hautesleak botoa emateko gutun-azal itxia eskura emanen dio mahaiburuari. Ondoren, mahaiburuak, gutun-azala denbora guztian denean bistan izanik, ozenki aditzera emanen du hauteslearen izena, eta, "botoa eman du" esaldia erantsita, gutun-azala hautesleari itzuliko dio, hauteskontzian sar dezan.

Hautesleak honako agiri hauetakoren bat aurkeztu beharko du identifikatzeko: nortasun agiri nazionala, pasaportea, gidabaimena, federazio baimena edo Federazioak luzatutako beste agiri ofizialen bat, titularren argazkia ageri duena, betiere.

4. Botoa emateko, goiburuan behar den estamentuaren izena daraman boto-papera erabiliko da.

- a) Kirolarien, teknikarien, epaileen edo arbitroen estamentuko kideak hautatzeko prozesuan boto-paperak batzarrerako dagokion estamentuaren hautagaien izena eta bi abizenak edukiko ditu. Hautagai-zerrenda hori bi zutabetan paratuko da, genero bakoitzeko bat; nolana ere, zutabe bakoitza alfabeto-hurrenkeran zerrendatu beharko da.

- b) Kirol erakundeen estamentua hautatzeko prozesuan, hautagaitzat hartutako kirol erakunde guztien izenak agertuko dira txartelean, ordena alfabetikoan.

Hautesleek hautagaiaren izenaren aurrean gurutze bat paratuko dute bozka egiteko, betiere estamentu bakoitzari esleitutako ordezkari kopurua gainditu gabe.

5. Boto-paper hauek baliogabekotzat hartuko dira:



- a) Hauteskunde-batzordeak ezartzen duen ereduarekin bat etortzen ez direnak.
- b) Dauden hautagaiak baino izen gehiago dituztenak.
- c) Dagokien estamentuan bete beharreko postu- kopurua baino izen gehiago dituztenak.
- d) Boto-paperean bozketari ez dagokion zernahi idatz-ohar dutenak.
- e) Hautagai-zerrendetan ez diren pertsonen boto ematen dietenak.

6. Bozketa bukatzeko ordua iristen denean, mahaiburuak ozen iragarriko du bozketa amaitzeaz dela, eta lokalean bertan edo haren sarreran diren hautesleei botoa ematen utziko die. Halakoetan, honako bozketa hurrenkera honi jarraituko zaio:

- 1.- Aretoan dauden eta ordura arte bozkatu ez duten boto-emaileak.
- 2.- Hauteskunde mahaian daudenak, ordena honetan: mahaikidea, idazkaria eta mahaiburua.

7. Bozketa bukatutakoan, mahaiburua botoak zenbatzen hasiko da; zenbaketa jendaurrean egingen du, honela:

- 1) Ateak irekiko dira, inork zenbaketa ikusi nahi badu ere.
- 2) Hautestontziari zigilua kenduko zaio eta boto-papera aterako dira.
- 3) Emandako botoen zenbaketari ekinen zaio.
- 4) Hautagaitza bakoitzaren botoak zenbatzen hasiko da.
- 5) Zenbaketa bukatzean, zenbaketa-akta egingen da, eta mahaikideek sinatuko dute; aktan honako hauek agertuko dira:
 - a) Zenbat boto-emaile markatu diren.
 - b) Boto baliodunak.
 - c) Boto zuriak.
 - d) Boto baliogabeak.
 - e) Zenbat boto jaso dituen hautagaitza bakoitzak.

Ondotik, Federazioko hauteskunde-batzordeari kopia bat igorriko zaio.

8. Estamenturen batean hauteskunde-mahai bat baino gehiago eratzea erabaki bada, hauteskunde-mahai bakoitzak dagokion akta egingen du eta, ondoren, hauteskunde-batzordeak egingen du estamentu horretako federazio-hauteskundeari dagokion azken akta. Amaierako akta horretan eraturiko mahai guzti-guztiei dagozkien apartatu guztiak batuko dira.

TITULUA

BATZAR NAGUSIRAKO HAUTAGAITZAK

17. artikulua. Batzar nagusirako hautagaien aurkezpena.

- 1. Dagokien estamentuaren izenean batzar nagusiko kide izan nahi duten kirolari, teknikari, epaile edo arbitroek hauteskunde egutegian zehazten den epean aurkeztu beharko dute Federazioko hauteskunde-batzordeko batzar nagusirako hautagaitza.



2. Behi betiko hautesle-eroldan dauden kirol elkarte guztiak batzar nagusirako hautagai izanen dira zuzenean; horrenbestez, ez dute hautagai-zerrenda berariazkorik aurkeztu behar.
3. Hautagaitzak aurkezteko, banakako hautagaitzen prozedura erabili behar da, 22/2024 Foru Aginduan ezarri bezala, eta idazki baten bidez formalizatu behar da. Idazki horretan, hautagaiek adierazi behar dute batzar nagusian hartu nahi duten postua izateko baldintzak betetzen dituztela eta hautagaitza aurkeztu nahi dutela. Idazki horretan honako hauek agertu behar dira:
 - Izena eta bi abizen, kirolarien, teknikarien, epaileen edo arbitroen kasuan.
 - Zer estamenturen izenean aurkezten den.

Idazkiari honako hauek erantsiko zaizkio:

- NANaren, pasaportearen edo identifikazio agiriaren fotokopia.

4. Aipatu dokumentazioa paperean aurkeztu behar da, jatorrizko sinadura eta guzti, edo cuskarri digitalcan, ezagutzeko moduko sinadura digital eta guzti. Dokumentazio hori posta elektronikoa arruntaz igorri gero, ez du baliorik izanen. Hala izanen da 22/2024 Foru Aginduan ezarritako tramitazio guztietan. Zehazki, hauek dira dokumentazioa aurkezteko baliozko formatuak:

- Papera, sinadura fisikoekin.
- Formatu digitala, PDF formatua, sinadura digital onartuarekin; baliozkoa da PDF hori posta elektronikoa bidez bidaltzea.

Kasu guztietan, dokumentazioa hauteskunde-egutegian ezarritako epearen barnean aurkeztu dela egiaztatzea behar da.

18. artikulua. Artekariak.

1. Batzar nagusiko kide izateko hautagaiek artekari bat izendatzen ahalko dute; horretarako, hautagaiaren eta artekariaren izenak jasotzen dituen idazkia aurkeztu beharko dute, biek sinatua.

Artekari izendatzeko beharrezkoa da hautesle izatea.

2. Artekariak honako agiri hauek aurkeztuko ditu hauteskunde-mahaian akreditatzeko: hautagaiak egindako agiria eta bere nortasuna egiaztatzen duen dokumentua (nortasun agiri nazionala, pasaportea, gidabaimena, federazio baimena edo Federazioak luzatutako beste agiri ofizialen bat, titularren argazkia ageri duena, betiere).

Mahaikideek hautagaiaren izaera egiaztatuko dute, baita izendaturiko artekaria hauteslea dela ere. Bi baldintza horiek betetzen badira, bozketa-aktan jasoko dira artekari horren akreditazioa eta bertaratzea.

3. Behar bezala akreditatutako artekariak Hauteskunde Mahaia eztabaidetara joaten ahalko dira, eta haietan parte hartzen ahalko dute, hizpidea izanda, baina botorik ez.

TITULUA

LEHENDAKARITZARAKO HAUTAGAITZAK



19. artikulua. Lehendakaritzarako hautagaiak aurkeztea.

1. Federazioko lehendakari izan nahi duten eta hautesle diren kirolari, teknikari, epaile edo arbitroek hauteskunde egutegian zehazten den epean aurkeztu beharko dute Federazioko Lehendakaritzarako hautagaitza.

2. Federazioko Lehendakaritzarako pertsona fisiko bat proposatu nahi duten kirol elkarte hautesleek hauteskunde egutegian zehazten den epean aurkeztu beharko dute Federazioko Lehendakaritzarako hautagaitza.

3. Hautagaitzak idazki bidez formalizatuko dira; honako hauek jasoko dira hartan:

- Hautagaiaren izena eta bi abizenak.
- Hautagaitza abalatzan dion sinadura, erregelamendu honen 7. artikuluarekin bat.

Idazkiari honako hauek erantsi behar zaizkio:

- Hautagaiaren NANaren, pasaportearen edo agiri baliokidearen fotokopia.
- Abal-emaitzen NANaren, pasaportearen edo agiri baliokidearen fotokopia.
- Kirol elkarteak hautagaia proposatzeko hartutako erabakia.
- Hautagaitzaren abal-emaitze diren kirol elkarten erabakia.

20. artikulua. Lehendakaritzarako hautagairik ez egotea.

1. Hauteskunde egutegian ezarritako epea bukatu eta ez bada federazioko lehendakaritzarako hautagairik aurkeztu, hauteskundetarako ezarritako egutegia eten egingen da, eta beste egutegi bat ezarri beharko da, lehendakaritzarako hautagaiak aurkezten diren unean hasiko dena.

2. Egutegi hori Federazioko kudeaketa-batzordeak prestatu eta onetsiko du, eta Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren ebazpen bidez ere onetsi beharko da.

3. Epe horretan ere lehendakaritzarako hautagairik aurkezten ez bada, hauteskunde prozesua behin betiko etenen da, eta bitartean kudeaketa-batzordea jarduncan arituko da.

TITULUA

BATZARKIDEEN HAUTESKUNDEAK

21. artikulua. Bozketak.

1. Batzar Nagusiko kideak hautatzeko bozketa, horretarako izendatutako Hauteskunde Mahaian egingen da, **2024ko urriaren 25ean**, ordutegi honetan: **10:30**



etatik 19:30etara, Nafarroako Federazioaren egoitzan (Mourgues etorbidea, 32 – behea, Igo lokala, 31740 Doneztebe).

2. Estamentu bakoitzak batzar nagusirako aurkeztuko duen hautagai kopurua dagokion estamentuko ordezkari kopurua baino txikiagoa edo berbera bada, federazioko hauteskunde-batzordeak aurkeztutako hautagaiak aldarrikatuko ditu batzar nagusiko kide, haiek hautatu beharrik izan gabe.

3. Federazioaren batzar nagusirako bi hautagai-zerrendaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada eta, hori hala izanik, kasuan kasuko estamentuko ordezkari kopurua gainditzen bada, egoera horretan dauden hautagaien artean zozketa eginez erabakiko da zein aldarrikatu batzar nagusiko kide.

4. Batzarrean estamentu bati dagokion ordezkari-kide kopurua betetzen ez bada, hautagairik ez dagoelako, Federazioko hauteskunde-batzordeak erabakiko du zein izanen diren kide horiek, egoera horretan den estamentuko hautesleen arteko zozketa eginez.

5. Estamentu bateko kide federatu guztiak hartuta ere batzar nagusian dagokien ordezkari kopurura iristerik ez bada, egoera horretan den estamentuko kideek, Nafarroako Herri Kirol Federazioari atxiki eta hauteskunderen erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenek beteko dute bete gabe gelditu den ehuneko hori, batzar nagusiaren agintaldi zehatzean, betetzen direnean.

6. Batzarkide hautetsiak zehazteko prozesua: Banakako hautagaitzak.

- a) Nafarroako kirol federazio baten estamentu batean emakumezkoen lizentzien ehunekoa hautesle-errolan jasotako lizentzia guztien % 10 baino gutxiago bada, estamentuko kide hautetsiak honela banatu beharko dira: % 10, gutxienez emakumeak; aurkeztutako emakumezko hautagai guztien artean boto gehien jaso dituztenak izanen dira. Eta % 90, gehienez ere, gizonak; aurkeztutako gizonezko hautagai guztien artean boto gehien jaso dituztenak izanen dira. Estamentuko hautagaien artean ez bada nahikoa emakumerik erregistratu kide hautetsi guztien gutxienerako % 10eko ordezkari-tza hori betetzeko, automatikoki hautatuko dira emakumezko hautagai guztiak.
- b) Nafarroako kirol federazio baten dagokion estamentuan emakumezkoen lizentzien ehunekoa estamentu horretako hautesle-errolako lizentzia guztien % 10 baino gehiago eta % 25 baino gutxiago bada, estamentuko kide hautetsiak honela banatuko dira: % 25, gutxienez emakumeak; aurkeztutako emakumezko hautagai guztien artean boto gehien jaso dituztenak izanen dira. Eta % 75, gehienez ere, gizonak; aurkeztutako gizonezko hautagai guztien artean boto gehien jaso dituztenak izanen dira. Estamentuko hautagaien artean ez bada nahikoa emakumerik erregistratu kide hautetsi guztien gutxienerako % 25eko ordezkari-tza hori betetzeko, automatikoki hautatuko dira emakumezko hautagai guztiak.
- c) Nafarroako kirol federazio baten estamentu batean emakumezkoen lizentzien ehunekoa hautesle-errolan jasotako lizentzia guztien % 25 edo gehiago bada, estamentuko kide hautetsiak honela banatuko dira: % 40, gutxienez



emakumeak; aurkeztutako emakumezko hautagai guztien artean boto gchien jaso dituztenak izanen dira. Eta % 60, gehienez ere, gizonak; aurkeztutako gizonzko hautagai guztien artean boto gchien jaso dituztenak izanen dira. Estamentuko hautagaien artean ez bada nahikoa emakumerik erregistratu kide hautetsi guztien gutxieneko % 40ko ordezkari-tza hori betetzeko, automatikoki hautatuko dira emakumezko hautagai guztiak.

7. Aurreko apartatuetan ez dira aintzat hartuko zenbaki dezimalak egoeretako bakoitzean ukitutako pertsonak kalkulatzeko; zenbaki osoak erabiliko dira bakarrik, eta hurrengo zenbaki osoa aintzat hartuko da 5 dezimala baino dezimal handiagoa duten zenbakietan (adibidez, 10,6 biribildu eta 11 izanen da). 5 dezimala baino dezimal txikiagoa duten zenbakietan, aurreko zenbaki osoa hartuko da aintzat (10,2 biribildu eta 10 izanen da). Zenbakiaren dezimala 5 bada, hautagai hori batzar nagusian ordezkari-tza txikiena duen generokoa izanen da.

22. artikulua. Batzarreko altak eta bajak.

1. Hautatua izateko bete behar izan zituzten beharkizunetatik bat edo beste galtzen duten pertsonak edo entitateek batzar nagusiko kide izateari utziko diote. Horretarako, behar den espedienteari emanen zaio hasiera; hartan, interesdunari aukera emanen zaio hamar egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu eta baja eragin zuen egoera konpontzeko. Epe hori iraganik, Federazioko Batzarrak hurrengo bilkuran, interesdunari entzunda (hark egoki baderitzo), behar dena ebaztuko du, eta horren berri emanen Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuari.

2. Baja gertatzen bada estamenturen batean federazioaren lizentzia berri-tza ez delako horretarako ezarritako epearen barrenean, bestelako tramiterik gabe emanen zaio baja, egoera hori konponezina delako. Hala ere, berritzeko eskaera behar bezala eta behar den epean aurkeztu bada eta federazioaren ebazpenaren zain baldin badago, espediente horren ebazpenaren zain geldituko da.

3. Aurreko zenbakian xedatutakoa ez zaio Federazioko lehendakariari aplikatuko.

4. Batzar nagusia osatzen duten estamentu bakoitzeko kideen bajak eta hutsuncak estamentu berean hauteskunde-emaitzen zerrendako hurrengo postua betetzen duten hautagaiek beteko dituzte (salbu eta federazioaren estatutuek beste araudiren bat ezartzen badute; kasu horretan, estatutu horien testua hartu beharko da kontuan).

5. Hauteskunde emaitzen zerrendan ez badago sortutako bajak betetzeko nahikoa pertsonarik, horiek betetzeko zozketa egingen da, hautesle-errodan batzar nagusia osatzeko beharkizunak betetzen dituzten kideen artean.

6. Edozein arrazoirengatik kargu huts horiek betetzeko behar diren baldintzak biltzen dituen pertsonarik ez badago, kargua hutsik gelditzen den-baldintza horiek betetzen dituzten entitate edo pertsonekin beteko dira.

XII. TITULUA

FEDERAZIOAREN LEHENDAKARIAREN HAUTAKETA



23. artikulua. Bozketak.

1. Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakaria hautatzeko Nafarroako Herri Kirol Federazioaren Eraketa Batzarraren bozketa federazioaren egoitzan egingen da (Mourgues etorbidea, 32 – behea, 1go lokala, 31740 Doneztebe), **2024ko azaroaren 30ean, 9:30tan** lehen deialdian, eta gutxienez Batzarra osatzen duten kideen erdiak egon beharko dute bertan.

2. Gutxienerako kopuru horretara iritsi ezean, batzar nagusia egingen da, 2. deialdian, ordu erdi geroago, bertaratuen kopurua edozein delarik ere, eta gutxienez lehendakaria eta idazkaria, edo haien legezko ordezkariak, bertan izanda.

3. Batzarkideei banan-banan jakinaraziko zaie Federazioko lehendakaria hautatzeko eraketa batzarraren deialdia.

4. Batzarraren eraketa bilkurako burua zozketaz aukeratzen den estamentuko hautetsirik zaharrena izanen da. Haren laguntzaile, idazkari lanetan, arituko da zozketaz aukeratzen den estamentuko hautetsi gazteena, baina hasierako bi kargu horiek betetzen dituztenak ezin izanen dira estamentu berekoak izan.

Hauteskunde-batzordeak, aitzineko paragrafoan ezarritako prozedurari jarraikiz, zehaztuko du zein izanen diren Federazioko lehendakaria hautatzeko batzarreko buru eta idazkari titullarrak eta haien ordezkioak. Dagokien batzarkideei jakinaraziko zaie zer kargutarako izendatu dituzten.

Nahitaezkoa izanen da Federazioko lehendakaria hautatzeko eraketa batzarrean buru eta idazkari karguetan aritzeko izendatutako pertsonak kargu horietan aritzea, atal honetan ezarritako prozedurari jarraikiz. Betebehar hori bete ezean, zigorra jartzen ahalko da, kirol diziplinaren araubideari jarraikiz betiere.

Batzarburua eta idazkaria ez badira batzar nagusiaren eraketa saiora joaten ez lehenengo ez eta bigarren deialdian ere, batzarburua hurrengo kide zaharrenak ordeztuko du, eta idazkaria hurrengo kide gazteenak, betiere kasu bakoitzean zozketa egin den estamentuaren barnean.

Ez bada bertaratzen batzarburu eta idazkari izatea egokitu zaien estamentuetako batzarkiderik, zozketaz erabakiko da zer estamenturi egokituko zaien kargu horiek betetzea haien ordezkariak.

5. Federazioko lehendakaria hautatzeko Eraketa Batzarreko buruak ebaztuko ditu ordenari eta prozedurari buruz hartan sor daitezkeen aferak.

6. Bozketa hasi baino lehen, hautagaiek beren programa aurkezten ahalko dute batzarrean.

7. Federazioko lehendakaria hautatzeko bozketan, ezin izanen da botoa inoren esku utzi, ezta botoa postaz igorri ere. Botoa sekretua izanen da.

8. Boto gehien eskuratzen duen hautagaia izanen da lehendakaria (gehiengo soil).

Federazioko lehendakari izateko bi hautagairen edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, 30 minutuko geldialdiaren ostean berriz egingen da bozketa; berriro ere



berdinketa gertatzen bada, egoera horretan dauden hautagaien artean zozketa egin eta horietako bat aldarrikatuko da Federazioko lehendakari.

9. Federazioko Lehendakaritzarako behin betiko hautagaitza bakarra badago, Federazioko hauteskunde-batzordeak Federazioko lehendakari aldarrikatuko du aurkeztutako hautagaia, bozketa egin beharrik izan gabe.

10. Federazioko lehendakaria hautatzeko bozketa prozedura honi jarraikiz eginen da:

- a) Nahi duten hautagaiek beren hauteskunde programa aurkeztutakoan, batzarburuak bozketarako deia eginen die batzarkideei.
- b) Batzarreko idazkariak batzarkideen izenak irakurriko ditu.
- c) Batzarkideek Batzarreko idazkariari honako agiri hauetakoren bat aurkeztu beharko diote identifikatzeko: nortasun agiri nazionala, pasaporte, gidabaimena, federazio baimena edo Federazioak luzatutako beste agiri ofizialen bat, titularraren argazkia ageri duena, betiere.
- d) Idazkariak bere zerrendan jasoko du zer batzarkidek bozkatzen duten. Botoa batzarburuari emanen dio, eta azken horrek hautestontzian sartuko du.

11. Bozketa amaituta, batzarburuak zigilua kenduko dio hautestontziari. Batzarburuak zenbatuko ditu botoak, eta idazkariak idatziz jasoko du zenbat eskuratu dituen hautagai bakoitzak.

XIII. TITULUA

GATAZTAK ETA ERREKLAMAZIOAK EBAZTEKO PROZEDURA

24. artikulua. Erreklamazioa, Federazioko hauteskunde-batzordeari zuzendua.

1. Behin-behineko hautesle-eroldaren argitalpenaren kontra erreklamaziorik aurkeztu nahi izanez gero Federazioko hauteskunde-batzordeari zuzendurik, hura hauteskundearen egutegian ezarritako epeari jarraikiz paratuko da; hartara, errekurtsoa aurkezteko egutegian ezarritako epearen azken eguneko **15:00ak** baino lehenago erregistratu beharko da Federazioko hauteskunde-batzordean.

Erreklamazioarekin batera, egoki juzgatzaren diren alegazioak aurkeztu behar dira, eta, hala badagokio, bidezko frogabideak.

2. Federazioko hauteskunde-batzordeak gehienez 3 egun balioduneko epean ebatziko du, erreklamazioa paratzen denetik hasita.

Erreklamazioa ezetsizat joko da ez bada ebazpen espresik ematen ezarritako epean.

3. Federazioko hauteskunde-batzordeak erreklamazioen gainean ematen dituen ebazpenak nahitaez eta berehala betetzekoak dira.



25. artikulua. Nafarroako Kirol Justiziako Batzordearen aurreko errekurtsua.

1. Hautesle-eroldaren argitalpenaren kontra paratutako erreklamazioen gainean Federazioko hauteskunde-batzordeak ematen dituen ebazpenak eta hauteskunde prozesuari dagozkion gainerako kontuen gainean hauteskunde-batzordeak hartzen dituen erabakiak errekurritzen ahalko dira, hauteskunde egutegian ezarritako epeetan, Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari zuzendurik.

2. Federazioko hauteskunde-batzordearen ebazpenen berchalako betearazpena gorabehera, Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeak betearazpena eteten ahalko du, errekurtsua tramitatu arte, ofizioz edo errekurtsogilearen eskaera espres eta arrazoituaren bidez. Errekurtsua aurkezteak ez du etenik ekarriko aurkaratutako ebazpenaren betearazpena.

3. Nafarroako Kirol Justiziako Batzordearen ebazpenak nahitaez eta berehala betetzekoak izanen dira, Administrazioarkiko Auzien Jurisdikzioan aurkaratzeko aukera ukatu gabe.

XIV. TITULUA

ZABALKUNDEA ETA PUBLIZITATEA

26. artikulua. Zabalkundea eta publizitatea.

1. Federazioaren iragarki-oholean eta webguncan jarriko dira hauteskundearen erregelamendu honen arabera iragarri beharreko ekintza eta erabakiak; besteak beste, honako hauek:

- Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren ebazpena, hauteskunde prozesua onesten duena.
- Lehendakariaren erabakia, federazioko batzar nagusirako eta lehendakaritzarako hauteskundeetarako deialdiari buruzkoa.
- Pertsona fisikoak hautesle-eroldan dauden kontsultatzeko prozedura.
- Hauteskundearen erregelamendua, hauteskundearen egutegia barne duena.
- Erabili beharreko agirien ereduak.
- Hauteskunde-batzordearen osaera.
- Hauteskunde-batzordearen eta Nafarroako Kirol Justiziako Batzordearen aktak eta ebazpenak.
- Nor hautatu diren Batzar nagusiko kide.
- Nor izendatu diren federazioko lehendakaria hautatzeko batzar nagusiko buru eta idazkari.

2. Federazioaren egoitzan hala eskatzen duten kide federatu ororen esku jarriko dira honako hauek:

- 22/2024 Foru Agindua, otsailaren 29koa, Nafarroako kirol federazioen hauteskunde prozesuak arautzen dituen.
- Hauteskunde erregelamendu hau.



3. Nafarroako Herri Kirol Federazioak arauak emanen ditu batzar nagusirako eta lehendakaritzarako hautagai guztiek baldintza beretan bidal dezaten informazioa eta propaganda, datuak babesteko araudi indardunean ezarritakoa betez, eta ez hautagai batek ez bestek berriazko onurarik izan ez dezan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrak gabe gelditzen da Nafarroako Herri Kirol Federazioak aurretik zuten hauteskunderen erregelamendua, baita hauteskunderen erregelamendu honi kontra egiten dioten maila bereko edo beheagoko arau guztiak ere.

AZKEN XEDAPENAK

Lchenbizikoa: Erregelamendu honetan zehazten ez den guztian otsailaren 29ko 22/2024 Foru Aginduan hauteskunde prozesua arautzeko ezarritakoa aplikatuko da oro har (haren bidez arautu ziren Nafarroako kirol federazioetako hauteskunde prozesuak).

Bigarrena: Nafarroako Herri Kirol Federazioko zuzendaritza-batzordearen esku uzten da Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak hauteskunderen erregelamendu hau aldatzeko egiten dituen eskaerak onesteko eskumena, apirilaren 14ko 80/2003 Foru Dekretuak eta otsailaren 29ko 22/2024 Foru Aginduak esleitzen dizkioten eskumenak erabiliz; dekretu haren bidez arautu ziren Nafarroako kirol entitateak eta Nafarroako Kirol Entitateen Erregistroa, eta agindu haren bidez onetsi Nafarroako kirol federazioetako hauteskunde prozesuak egiteko arauak.

(sinatua eta zigilatua)

72676395Y
JON
TELLETXEA (R
Q3126954A)

Firmado digitalmente por 72676395Y JON
TELLETXEA (R: Q3126954A)
DN: Description=Ref.
GOU_NAVARRA/GOU_NAVARRA004RPUUESTO18
032479042023093300,
SERIALNUMBER-IDCES-72676395Y, C=JON,
SN=ILLLI XLA JUANLENA, CN=72676395Y JON
TELLETXEA (R: Q3126954A),
OID.2.5.4.97-VATES-Q3126954A, O=FEDERACION
• NAVARRA DL ILIHI KIROLAK, C=ES
Razón: Soy el autor de este documento
Utilización:
Fecha: 2024-05-14 13:03:26
Foxit Reader Versión: 9.4.1

Federazioko lehendakaria

Federazioko idazkaria